


MILITANTZIA
FEMINISTARAKO
PROPOASMENA

ERNAI

URBAIN FEMINISTA



MILITANTZIA
FEMINISTARAKO
PROPOASMENA

ERNAI

URBAIN FEMINISTA

2022-2024,
Euskal Herrian.



AURKIBIDEA

1. SAR HITZA	6
2. URRATSA: ESTRATEGIA FEMINISTA GARATZEKO GAITASUNEN BIDERKATZE PROZESUA ..	8
3. MILITANTZIA FEMINISTARAKO OINARRIAK	11
3.1 Militantzia feminista ereduaren ezaugarritzea	12
3.2 Ikuspegi feminista transbertsala	13
3.3 Pertsonala politikoa da	13
3.4 Aliantza feministak	14
4. ERALDAKETA BEHARRA.	18
4.1 Eraldaketa prozesua nolakoa. Zer da eraldaketa	18
4.2 Antolakundearen eraldatu beharrekoak, lehenengo urrats bat	19
4.2.1 Hezkidetzeta.....	20
4.2.2 Boterea	21
4.2.3 Zaintza	23
4.3 Zaintza hirukoitza	26
5 ALDAKETA BATERAKO BIDEA EGITEN	32
5.1 Militantzia feministara bidean antolakundeko erabakiak	33
5.2 Mekanismoak	40
6 AMAIERAKO HITZA	46

SARITZA

1. SAR HITZA

Esku artean daukazuna Ernairen estrategia feministaren oinarriak jarriko dituen militantzia feministarako proposamena da, bi urteko hausnarketa eta ibilbide feminista luzearen ondorioz osatu dena. Baita hori aurrera eramateko konpromiso, erabaki eta tresnen multzoa ere.

Ernaiek feminismoan eginkizun bat bete behar du. Eskola feminista izan behar da gazte antolakundea, eta horretarako, formakuntza bezain garrantzitsua da militantzia ereduaz hitz egitea. Gainera, mugimendu feministak dituen erronkak bultzatuko dituen antolakundea izatea nahi dugu eta, ondorioz, egitura eta militantzia eraldatzea ezinbestekoa da.

Urrats honetan, horixe egin dugu, antolakundea, taldeak eta militanteak prestatu, estrategia feminista eraginkorra garatzeko militantzia eredu eta egiturak eraldatu. Militanteon eraldaketarik gabe ezinezkoa delako antolakundearen egiteko moduak aldatzea, militanteen eraldaketa ezin baita soilik aldaketa estukturaletan oinarritu. Prozesuan oso garrantzitsua izan da militantziaren dimentsio eta espazio ezberdinak kontenplatzea, eta aurrerago azalduko dugun bezala, ez soilik militantzia formalari lotutakoak. Pertsonala politikoa da eta, beraz, pertsona militantearen bizitzako esparru guztiak kontenplatzen ahalegindu gara.

Argi daukagu bidea ez dela amaitu, eta hausnarketa eta eraldaketa etengabea eskatzen digula behin eta berriz berrarmatzen den sistema zisheteropatriarkalari aurre egiteko lanak. Honek abiapuntu bat izan nahi du, oinarria. Gure antolakundea despatriarkalizatzeko bidea hasi dugu, helmuga Euskal Herri feminista eraikitzea izango da.

UBRAITS

2. URRATSA: ESTRATEGIA FEMINISTA GARATZEKO GAITASUNEN BIDERKATZE PROZESUA.

Urratsa 2022ko ekainaren 24an kongresua amaitzearekin batera abiatzeko konpromezua hartu genuen. Ez zen lehenengo aldia horrelako prozesu bat egiteko inizatiba hartzen genuela, aurrekari genuen 2013tik 2017ra garatu zen lehenengo urratsa. Hala ere, ez genuen hau bigarren pauso bat bezala ulertzen. Dimentsio ezberdinetan eta zeharo desberdina den prozesua izan da oraingoa, formakuntza teorikoan eta norbanakoaren ahalduntze eta irakaspen prozesua baino, militantziaren dimentsio guztietan hausnarketa eta aldaketak eragiteko helburuarekin abiarazi baikeuen, aldaketa konkrituak adostu eta diseinatzeko.

Hiru bloke nagusik osatu dute prozesua: Norbanakoaren eraldaketa, taldearen eraldaketa eta azkenik, antolakundea aldatzeko hausnarketa orokorra. Hori horrela da ezinezkoa delako dimentsio horietako bat aldatzea gainontzekoetan lanketarik egin gabe. Norbanakook hausnarketa eman eta militantzia feminista garatu ahal izateko, antolakundeak eskaintzen dituen espazioak, egiteko moduak eta erritmoak horien mesedetan pentsatuak egon behar dira. Aldi berean, taldean funtzionamendu feminista egon dadin norbanakoon hausnarketa eta konpromezua behar du. Horretarako hausnarketa pertsonala, talde diagnosiak eta maila nazionalako eztabaidarako espazioak izan ditugu, besteak beste.

Lehenengo ikasturtean norbanakoaren eraldaketan eta talde eraldaketan zentratu ginen. Lehenengo hausnarketak espazio ez mistoetan egin genituen, ulertzen baikenuen gizon zein emakume bezala sozializatu izanak konpromezu ezberdinak zekartzala eraldaketa prozesurako eta, beraz, hausnarketak ere ezberdinak izan behar zirela. Behin oinarria jarrita talde diagnostikoak egin eta horien funtzionamendu feministarako mekanismoak sortu genituen. Talde bakoitzak bere errealitate zehatzari erantzungo zion mekanismoak sortu zituen.

Bigarren ikasturtean berriz, antolakunde mailako eraldaketarako eztabaida prozesua ireki genuen. Lehenengo saioa ernaiko militantzia osoa batuta egin genuen, zeinetan formakuntza jaso eta militantzia feminista baterako oinarritzko ezaugarri eta eginbeharren inguruan eztabaidatu genuen. Azken eztabaida horren ondorioekin herri eta auzoetako taldeetan modu sakonagoan eztabaidatuko zen ibilbide metodologikoa osatzen hasi ginen. Hiru ardatzen baitan pibotatu duena: hezkidetzak, boterea eta zaintza. Bereziki, azken atal horri lotuak dira hartu ditugun eraldaketarako erabakiak.

Prozesu guztian zehar herri eta auzoetan urratseko arduradunei esker taldeak dinamizatu eta eztabaida guztien ondorioak bildu ditugu eta, ondorioz, militantzia feministarako proposamen hau aurkeztu dugu. Hemengo proposamena haiek egindako lan konstantearen emaitza da.

THE
TITANIC
WAS
BUILT
IN
1912

IT
S
WAS
THE
LARGEST
SHIP
EVER

3. MILITANTZIA FEMINISTARAKO OINARRIAK.

Atal honek militantzia feministaren ezaugarriak bildu nahi ditu. Urratseko prozesuan zehar oinarri teoriko bezala erabili izan ditugun hainbat tesi eta hausnarketa jasotzen ditu. Jakina, badakigu honek norabide bat baino eskaintzen ez duela, militantzia feminista batetarako eraldaketa antolakunde mistoetan ez baita ariketa erraza, ezta norabide horretan egindako ibilbidea ere.

Hasteko, hurrengoa argitzea komeni da: militantzia feminista ez da jarduteko moduetan ikuspegi hutsa edo betaurreko moreak janztea, haratago doa; arautua edota zehaztua egon daiteken praktiken multzoa da, konkretua; egituren, informazio kanalak, erabakimen marko eta prozedurak baldintzatzen eta sortzen dituena. Horien parte hartze demokratiko eta parekidea ahalbidetzen duena, zisheteropatriarkatuak ezarritako arauen kontra neska, trans eta bolleron ahalduntzetik haratago, arauak berak eraldatzeko gaitasuna eskaintzen duena. Hori bermatzen dela ziurtatzeko ezinbestean militante feministen lidergotza beharrezkoa da.

Aldaketaz hitz egiten ari gara, ukigarriak eta ikusgarriak izango direnak, nahiz eta hauek egun batetik bestera egingo ez diren kontziente garen, bidaia bat da hasten ari garena, ikusezina den bidaia. Espazio ez mistoak eta feministen parte hartzea espazio guztietan bermatuzetik haratago, antolakundea eta egitura eraldatzen ari gara. Ernaitik hasita Euskal Herriko egitura guztien despatriarkalizazioa bilatzen dugu. Urrats horren bidez, Ernairen estrategia feminista garatzeko gaitasunak biderkatu nahi ditugu, Euskal Herri feminista eraikitzeke baldintzak sortzeaz eta eraginkortzeaz ari gara.

3.1 MILITANTZIA FEMINISTA EREDUAREN EZAUGARRITZEA.

Historian zehar lidergotza eta militantzia eredugarria beti lotu izan da ezaugarri maskulinoekin. Hori estuki lotua dago historikoki eman den emakume, trans eta bolleron bazterketarekin. Espazio publikoa gureganatzearekin batera, bestelako lidergotza ereduak edota lidergotzaren baitako ezaugarritzeak aurkeztu izan ditugu.

LIDERGOTZA ETA BOTERE MASKULINOA	LIDERGOTZA ETA BOTERE FEMENINOA
<ul style="list-style-type: none"> • Lidergotza autoritarioa eta argia. • Lehiakortasuna eta, beraz, egituren hierarkizazioa. • Estrategia operatiboak, kooperazioaren gainetik. Talde izaerak garrantziarik ez. • Helburua amaierako arrakasta da soilik. • Arazoen konpontzean intuizioa ukatzen da; arazoia gailentzen da guztiaren gainetik. • Esperientziaduna, ibilbide luzekoa eta heldua. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eskuordetzeko (delegatzeko) gaitasuna. Jarrera dinamikoagoak eta parte-hartzaileagoak. Hierarkizazioa ez da hain nabarmena. • Taldean zentratuak. Ez bakarrik honen antolakuntzan, baita lankidetzan ere. • Enpatia eta entzute aktiboa. • Hobetzeko eta gairadipenerako asmoa. • Ekintza-jokoaren barruan, guztiontzako onuragarriak diren konponbideak bilatzen saiatzen dira. • Boterea modu ez hain finalista eta obsesiboan tratatzen dute, era funtzionalago eta instrumentalago batean. • Talde-garapenean inplikaturik daude, eta horrek ekintzetan parte hartzera eramaten ditu.

Ezaugarri hauek feminitatearekin estuki lotuak daude (segurtasun eza, aitortza bilatzea, arreta gehiegi ez deitzea...), eta historiak erakutsi digu, emakumeek lidergotza izatearekin aski ez dela. Feministaz osaturiko antolakunde, zuzendaritza, lidergotza eta parte hartze aktiboa behar dugu, ezaugarri hauek modu kontzientean aplikatuak eta hautu politikoen ondorio izan daitezen, ez segurtasun ezaren islada.

Ardurak partekatu, parte hartzea sustatzea, elkarriketa, elkarrekintza... guzti horiek ardaztu behar dute gure militatzeko modua, ulertuta, gainera, hainbestetan landu dugun eta gure jardunaren erdigunea hartzen duen dinamizazio politiko on batez ari garela. Taldea erdigunean jartzen duen militantzia eta indibidualismoa/norbanakoa gainditzen duena. Eraginkorra dena, bizigarria eta motibatzailea.

Aurretik aipaturikoaz gain, militantzia feminista baterako eraldaketa eremu eta bermatu beharreko beste bi ezaugarri gehitu nahiko genituzke: Hezkidetzeta eta zaintza. Hezkidetzeta-ikuspegiak generoaren sozializazioak duen eraginaz kontzientzia hartzeko aukera ematen digu. Edozein interakzio sozial (pertsonek jokabide, pentsamendu eta sentimenduak) ulertzeko aukera emanez. Bestalde, zaintza elkarbizitzarako eta talde osasuna bermatzeko oinarritzko ezaugarria da, horregatik, zaintza militantzian zer eta nolakoa izatea zehaztea ezinbestekotzat jo dugu. Betiere zaintzaren dimentsio kolektiboa erdigunean jarrita eta triangelu bat osatzen duten antolakundea, taldea eta ni-a kontuan izanik. Horiek aurrerago landuko ditugu sakoenean.

3.2 IKUSPEGI FEMINISTA TRANSBERTSALA

Argi dago ere militantzia feminista baterako ezinbestekoa dugula ulertzea ikuspegi feminista izatea ezinbestekoa dela. Feminismoa gure bizitzaren espazio eta dimentsio guztietan egon behar da presente; presente eta eragiten. Perspektiba feminista garatzea, kritikotasuna eta ahalduntzea eskatzen du. Zisheteropatriarkatuaren arauen erreproduktzioa edota betiketzea suposatzen duten ekintza, ardura banaketa, egitura, talde dinamika... oro kuestionatu eta aldatzeaz ari gara ikuspegi feminista transbertsalki bermatzeaz ari garenean. Plangintza egiterakoan, ardura banaketan, baina baita eguneroko erabaki txiki eta taldeko gatazkei aurre egiteko perspektibaz.

Argi dago ez dela egun batetik bestera lortzen den kontzientzia, eta praktika, hutsune, denbora eta prestutasun asko beharko du. Horren aldeko hautu politikoa hartzea da gure zeregina urrats honetan, gure bizitzaren esparru guztiak hankaz gora jartzeko prestutasuna izatea. Azken finean, pertsonala politikoa delako.

3.3 PERTSONAKA POLITIKOA DA.

Bilera amaitzean ez da gure militantzia amaitzen, askotan landu izan dugun afera da hori. Ernaiko kideok gure bizitzako esparru guztietan gara militante, pertsonala politikoa dela aspaldi ikasi baikenuen. Feminismotik ikasi genuen eremu publikoa eta pribatuaren eta produktibo eta erreproduktiboaren arteko bereizketa zisheteropatriarkatuaren asmakizuna dela, emakume bezala

sozializatutako pertsonon esplotaziorako, bakartzerako eta agentzia politikoa kentzeko.

Baina urrats honetan eremu pribatuari historikoki loturiko aferak politikoak direla mahaigaineratzetik haratago, gure erabaki "pertsonalen" dimentsio politiko-militanteaz hitz egin dugu, hau da, gure eguneroko praktiken gaineko tentsio bat sortu eta harturiko erabaki horien gaineko hausnarketa politikoak abiarazteaz.

Erabaki "pertsonalek" politika egiten dute. Norbanako bezala egiten ditugun horiek kolektiboan inpaktu bat sortzen dute, hori norabide eta izate askotarikoa izan daitekeelarik. Adibide bat jartzearen, zisheteronormak ezarritako gizartean aurkezteko itxurari uko egiten diogunean gainontzekoak gurekin nola harremanduko diren baldintzatzen gabiltza, nola tratatuko gaituzten, bainon baitan baldintza sortzailea izango da beste batzuk ere uko egin diezaioten.

"Pertsonala politikoa da" esateak gure inguruaren errebisioa eskatzen duen bezala, eraldaketa suposatu behar du. Eraldaketaz ari garenean norbait itxuraz edo ohituraz aldarazteaz ari gara, estadio batetik besterako trantsizioaz (hobea normalean). Trantsizio horretarako norabidea, konpromisoak eta ezaugarriak identifikatu zein martxan jartzea dagokigu. Eraldaketa prozesu hori, ordea, maila indibidualean soilik ematea edo kontenplatzea zaila bezain okerra izan daiteke. Horregatik, eraldaketaren dimentsio kolektiboa ezin dugu bistaz galdu.

Bi zentzutan esaten dugu hori, lehen aipatu bezala norbanakoaren eraldaketak gainontzekoengan eragin dezakeen hori balorean jarri nahi dugulako. Baina, bereziki, estrategikoak eta eraginkorrakoak direlako elkarrekin ematen diren pausoak, eta oztopoz beteriko bide honetan elkarrekin aurrera egitea besterik geratzen ez zaigulako.

3.4 MILIANTZIA FEMINISTA GARATZEKO BERMEAK. ALIANTZAK.

Militanteok denbora asko pasatzen dugu elkarrekin: elkarlanean, bileretan eztabaidan eta hausnartzen, bidaietan, txandak egiten... eta horrek guztiak gutako bakoitzaren artean hariak sortzen ditu. Militantzia eremu partekatuek harremanak sortzen dituzte eta harreman horiek izugarriko garrantzia dute militantzia horren garapenean. Baldintzatu egiten dute: talde bateko kideen arteko harremanen arabera izan daitezke motibazioa, inbertitutako denbora, ilusioa, egiten ditugun apustuen tamaina, planteamenduen arrakasta... baina baita desilusioa eta utzikeria ere. Horregatik da hain garrantzitsua harremanak aztertu, landu eta zaintzea.

Asko dira harreman horien nolakotasunean eragiten duten elementuak: nondik

gatozen eta non gauden, norberaren egiteko zein egoteko moduak, bakoitzaren pentsamoldea eta ideologia, aurreiritziak, bizipen edo gertaera zehatzak, kideen artean ematen diren botere harremanak... eta nola ez, generoak guzti hori zeharkatzen du. Sozializatuak izan garen generoaren arabera, bakoitza motxila batekin iritsiko gara harreman horietara eta taldean boterea egikaritzeko moduan eragin zuzena izango du horrek, baita botere harreman horien arabera gu taldean nola kokatzen garen ere. Esan bezala, horrek harremanetan eragingo du, baina baita gure artean sortuko diren (edo sortuko ez diren) aliantzetan ere.

Aliantza, kide desberdinen artean zerbait komunean edukitzearen ondorioz, helburu komun bat lortzeko sortzen den konplizitatea da. Partekatzen dugun hori ideologia, lehentasun bat, kezka bat izan daiteke, edo lortu nahi dugun horri lotutako helburu zehatz bat. Baina aldi berean, komunean duguna genero inposatua izan daiteke, eta horren ondoriozko jarrerak zein ikuskerak.

Horregatik, nolako aliantzak eta zertarako nahi ditugun hausnartu beharko genuke, eragiten duten horiek guk aurrez jarritako helburuei erantzun diezaien. Esaterako, eremu mistoetan jarduten dugun neska, trans eta bolleron artean isileko babes paktu bat baldin badaukagu, zergatik ez ditugu horri buruz hitz egiteko eta erabakiak hartzeko espazioak sortzen? Elkar babestetik, elkarrekin ofentsibara pasa, guztiaren artean erabakiak legitimatuz militantzia eremu parekideagoa lortzeko?

Orain arte naturaltzat hartu dugun konplizitateak modu kontziente batean eragin dezan, aliantza feminista bilakatu behar dugu. Horretarako, espazio militanteak partekatzen ditugun neska, trans eta bolleron artean, zein beste espazio batzuetan dabiltzanekin eraiki behar ditugu espazio eta aliantzak. Horrela, barrutik eragiteko estrategiak diseinatzeaz gain, kanpotik ere gure zentzu berean indar egingo duten kideak bidelagun izango ditugu.

Neska, trans eta bolleron arteko aliantzak gainera, zisheteropatriarkatuaren kontra egiteko estrategia eraginkorrenetarikoa dela ezin dugu bistaz galdu. Gure arteko konspirazio uneetan, zisheteropatriarkatuak ezartzen digun gure arteko lehiari uko egitearekin batera, emakume egiten gaituen hori berpentsatu, zalantzan jarri eta estrategia berriak sortzeko aukera ematen ditu.

Nesken artean aliantzak eraiki behar ditugun bezala, garrantzitsua da gizonezkoek haien pribilegioak indartzen dituzten aliantzak deseraikitzea, are gehiago, esanenezake, militantzia feministarako despatriarkalizazio prozesua eman dadin gure antolakundean oinarritzeko pausoa dela gizonen arteko aliantzak deseraikitzea. Norekin harremanetan garen hausnartetik haratago, orain arte harreman horien nolakotasunean dagoen intentzioaz hausnartu eta eraldatzea lortu behar dugu. Estatus, botere, ahotsa ematen diguten kolegeoa bilatzeari utzi behar diogu.

Borobiltzeko, aliantzek berebiziko garrantzia dute boteretze eta ahalduntze prozesuetan. Eta orain arte argi utzi ez badugu, eraldaketa feministak dimentsio indibiduala zein kolektiboa du: norberak urratsak eman ditzake, baina topatuko ditugun oztopoei nekez egin ahalko diegu aurre kideen laguntza eta babesgabe.

RE
ME
DIA
RA
RE

RA

RA

RA

RA

RA

RE

RE

4. ERALDAKETA BEHARRA.

4.1 ZER DA ERALDAKETA? ERALDAKETA PROZESUA NOLAKOA?

Eraldaketa feminista etengabeko ikaskuntza prozesu bezala irudikatzen dugu. Denbora guztian egiten ari garen ikaskuntza prozesua da. Ez dugu egun batetik bestera egingo eta etengabe geure burua kuestionatzen egongo gara. Bestelako eredu batzuk sortu beharko ditugu, bestelako desira, espektatiba, nahiak...

Prozesuaren helburua Ernaiko militanteok eraldaketarako subjektu bihurtzean datza. Gure jarreraren eta praktiken errebisiotik hasi, eta taldea zein antolakundea bere osotasunean feminista izan dadin, formakuntza eta hausnarketarekin pausuak ematea. Ernairen lan ildo eta jardunean ere, feminismoak presentzia handia hartu du. Erdietsi nahi dugun jendartearen isla izan behar dugu guk eta gaurdanik hasi behar dugu bizi-eredu feminista hori eraikitzen, praktikan jartzen, bizitzen. Baina, argi dago lan handia dugula egiteko.

Bestelako eredu bat eraiki nahi duen antolakundeak beste eredu horren ispilu izan behar du; eta hori da gure apustua. Horretarako, balore iraultzaileen inguruko oinarrizko formakuntza bermatzeaz gain, gure jardunean eta jarreretan aldaketa bat ematea da eraldaketa prozesuen helburua. Definizioz, dimentsio indibidual zein kolektiboa kontenplatu duena, norbanakoaren eta taldearen eraldaketaz ari gara.

Prozesu horien lidergotzan beharrezkoa da militante feministak izatea, baita

Ernairen proiektu politikoa aurrera eraman ahal izateko. Prozesu eta eraldaketa feminista norbere burutik hasita ingurua feminismotik eraldatzeko apustua egiteko eta esparru ezberdinetan eragiteko bidea egitean datza. Feminismoa izan da eraldaketarako gaitasun gehien erakutsi duen mugimendu eta balio politikoa. Beraz, gure estrategia garatzeko ezinbestekoa dugu. Esandakoan berresten gara, eraldaketa plano eta espazio guztietara eraman nahi badugu bide horretatik jo behar dugu. Militante feministak izan behar gara.

Militante feministak eraldaketako subjektu aktibo gara. Eraldaketa gainera, ez dugu soilik antolakunde barruan bilatzen, espazio ezberdinetan egiten dugu, bai antolakunde barruan, bai kanpoan, bai espazio zabaletan... Gure baitan despatriarkalizazio prozesuak eta eraldaketa feministarako prozesuak egitea Euskal Herriko iraultza feministarako aurrekari eta oinarriak jartzeko prozesu bezala ulertzen ditugu.

Azken batean, ez gara isolaturik bizi, jendarte zisheteropatriarkal-kapitalista batean bizi gara, eta gu ere balore patriarkalen arabera hezi gaituzte. Zisheteropatriarkatua gure bizitzako zirrikiturik txikienean ere sartu zaigu: telebistan, arropan, lagunekin ditugun elkarrizketetan, Jai atzordean hartzen ditugun arduretan, gaztetxean betetzen dugun paperean, gure harreman afektiboetan erreproduzitzen ditugun roletan, aukeratzen ditugun ikasketetan, gure familiarekin dugun harremanean... Atsedetik gabeko borroka bat da, denen ardura dena. Eraldaketa gugandik hasten da, feminismoarekin gure burua zalantzan jartzetik, eta horrela eraldaketa zer den ikasten ari gara. Prozesua ez da erraza, gauzak zalantzan jartzea eta kontraesanak izatea talkak sortzen ditu, eta horiek erosoak ez izan arren beharrezkoak dira, horiek bidea egiten ari garenaren seinale baitira. Zalantzen, kontraesanen eta talken gaindipenerako prozesuaren eskutik dator eraldaketa.

Aurrera jarraitzen dugu. Jendarte askea eraikitzeke ezinbesteko pausoa izan da eta jendartea astintzen jarraituko dugu. Askapen mugimendua feminismoz busti eta gure proiektua eta praktika aberasteaz gain, proiektu politiko bat berritzea zer den ikasi dugulako, teorian zein praktikan.

4.2 ANTOLAKUNDEAN ERALDATU BEHARREKOAK, LEHENENGO URRATS BAT.

Militantzia feminista baterako konpromisoa hartu dugu, eraldaketan sinesten dugu eta hori gauzatzeko bidean hausnarketa eta mekanismoak abiarazi ditugu. Militante feministak gara eta gure praktikak ere hala izan behar du. Hori horrela, gure hutsune nagusiak identifikatu eta horien inguruan hausnartu dugu, eraldaketaren ikuspegia indartu eta konpromisoa kolektibizatuz. Argi dugu hezkidetzak ikuspegia garatu behar dugula militantzia feminista bermatzeko eta feminismoa gure antolakunde transbertsal izateko. Bestalde, zaintza zer den

adostu eta praktikara eramateko akordioak garatu behar ditugu, militantzia gozagarri eta sostengarri izan dadin. Azkenik, boterearen inguruan hausnartu eta horren oinarriak finkatu behar ditugu.

4.2.1 BOTEREA

Kontrakoen batasunean ematen den harreman sozial asimetrikoa da. Botereak kontzeptu gisa hamaika ertz baditu ere gure jendartearen boterea modu dikotomikoa eta bertikalean ulertu ohi dugu, hots, norbaitek boterea dauka edo ez dauka, lehenengoa zapaltzailea izanen da eta bigarrena, aldiz, zapaldua. Baina, boterearen ulerkerak estatiko eta aldebakarreko horrekin bukatu behar dugu, boterea menderatze gisa gainditu eta eraldatu behar dugu. Izan ere, boterea harremanetan bertan zertzen da. Harreman sistema bat osatzen du, interakzioaren fruitu. Horregatik ezin dugu esan berezkoa dugun zeozer denik, edukitzen dena, edo posizio estanko bat; eragiten eta egiten dugu. Boterea estatu-egiturek zein instituzioak (formal eta ez-formalak) sostengatua eta legitimatua da. Ondorioz, maila mikroan (harremanetan) eta makroetan (egitura sozialetan) ematen diren asimetriak dialektika bizioan ulertu behar ditugu, batak bestea ahalbidetu eta indartzen duelarik.

Beraz, boterearen irakurketa hori eginez, boterea baliabide, ahalduntze, erabakimen gisa ikusi behar dugu, ikusi eta desiratu behar dugu. Boterea eskuratzeko nahia izan behar dugu. Ez indibidualki norbanakoaren interesen mesedetan, baizik eta gehiengoaren, zaurgarrienen, disidentzien alde eragiteko. Boterea ez da kuantifikatzen, eta beraz, banaketa egiterakoan ez da galtzen. Kontrara, biderkatu egiten dugu.

Boterea desiratzeaz eta eskuratzetik ari garenean mendekotasun-egoeran dauden kolektiboen ahalduntzetik ari gara. Prozesu horren bidez kolektibo horiek beren autokonfiantza eta barne-indarra areagotzeko gaitasuna garatzen dute, ahotsa irabazten dute, eguneroko bizitzaren nolabaiteko kontrola hartzen dute, beren posizioa zehazten duten faktoreak identifikatzen dituzte eta banaka edo taldean erronka egiten diete. Prozesu horiek gertatzen dira gizabanakoak eta talde antolatutakoak gai direnean beren mundua beste era batera irudikatze eta errealitate bihurtzeko.

Ahalduntze eta boteretzea gure buruen eta taldearen kontzientzia hartzeko prozesua da, ondoren gure posizio sozial, politiko eta ekonomikoa indartzeko. Kontzientziazio hori ezinbestekoa da erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartze handiagoa izateko, antolatze eta boterea eraikitze. Izan ere, ahalduntzearen bidez, burujabeak izateko oinarriak jartzen ditugu: autoestimua hobetzea, gaitasunak eskuratu eta garatzea, autogestioa lantzea... Horregatik, esan dezakegu ahalduntzea prozesuaz gain emaitza ere badela.

Antolakundeko militante orok boterearen inguruko gogoeta ezberdinak jarri ditugu martxan eta hausnarketa horietatik gure boterearen erabileraren inguruko konpromiso/irizpide batzuk markatu ditugu, beraz, boterea erabiliko dugu:

Eraldaketarako:

- Inguruko jendea feministatu eta kontzientzia feminista bat eratzeko, eraldaketa feminista bat garatu ahal izateko.
- Gure egunerokotasuneko ekintzak, pentsamenduak edota jarrerak aldatzeko.
- Alternatibak eraikitzeko: asanbladak, auzoetako jai herrikoiak, babes sareak...
- Eraiki nahi ditugun bizi proiektuei forma emateko eta utopiak marraztu ahal izateko.

Aliantzako eraikitzeko:

- Gure arteko aliantza feministak sortzeko.
- Jakintza edo ezagutzak zabaltzeko, boteretze kolektibo bat garatu ahal izateko.
- Espazio seguru eta transfeministak sortzeko.
- Ernaiko gizon militante izateak ematen duen erreferentzia bestelako eredu baten baitan eraikitzeko. Aliantza eredu berriak sustatzeko.

Espazioak sortzeko:

- Espazio ezberdinetan ikuspegi feminista batetik eragiteko. Finean, feminismoa transbertsala izateko.

Ahalduntzeko:

- Ahalduntze kolektiborako mekanismoak sortzeko.
- Boterea banatzeko eta desboteretze prozesuak gauzatzek. Botere indibidualista alde batera uzteko eta kolektiboa bilakatzeko.
- Askapen prozesuarekiko loturan motibazio eta zilegitasuna aitortzeko, gure lana balioan jartzeko.
- Garapen pertsonal eta kolektiboak emateko.

4.2.2 HEZKIDETZA

Genero-sozializazioa pertsoneri nola jokatu irakasteko prozesua da, generorol gisa ezagutzen denaren eta izendatu den generoaren gizarte-itxaropenen arabera egiten dena. Genero-sozializazioak genero-estereotipoak irakastea

dakar berekin. Genero estereotipoak berezkotzat edo naturalizat jotzen diren zenbait portaera eta jarrera dira. Portaera eta jarrera horiek maskulinitate eta feminitate nagusiak definitzen dituzte. Horiek, pertsona orok ikasi, barneratu eta erreproduzitzen ditugu, feminitate- eta maskulinitate-eredu baliodunak erakusteko.

Genero-agindu arauemaeleez ari gara ikasiak direnak eta emakume edo gizon gisa eraikitzea ahalbidetzen dutenak azaltzen ditugunean, eskusio-termino bitar heteropatriarkaletan egiten direnak. Orduan, generoa era dikotomikoan ulertzen da, non generoen arteko harremanak hierarkizazio moduan antolatzen diren eta maskulinoa botere-posizioan dagoen, femeninoarekiko gainjarpen posizioan.

Beraz, esan genezake rolen banaketa eta barneratzearen bitartez genero esterotipoak betikotzat edo naturalizat jotzen direla, maskulinitate eta feminitate eredu hegemonikoen baitan. Irakaskuntza honekin pertsonak auto-kontzeptua osatzen du, bere buruarekin eta besteekin duen harremana baldintzatzen duelarik. Zapalkuntza sisteman, dimentsio edo zapalkuntza ardatz bat osatzen du bi generoen sozializazioak.

- Aipatutako feminitate- eta maskulinitate-eredu hegemonikoak botere-logika batean oinarrituak daude.
- Maskulinitate eta feminitatearen eraikuntza hegemonikoa, sozializazioaren bidez egiten da.
- Zapalkuntzaren hainbat dimentsioen arteko gurutzaketa ematen da.
- Oposizioaren eta dimentsio bitar-dikotomikoaren eta hierarkizatuen (gizona vs emakumea; heterosexuala vs homosexuala; zuria vs beltza; aberatsa vs pobrea...) ikusmoldea du;

Hezkuntzak gizon eta emakume izatearen kategoria nagusiak deseraikitzeke duen garrantzia. Nesken eta mutilen genero hegemonikoaren sozializazioaren garrantzia azpimarratzeak, bereziki, identitateak, gorputzak, kulturak, gizarte taldeak, emozioak, jokabideak eta abar eratzen laguntzen du. Hori dela eta, haurtzarotik hainbat kanaletatik jasotzen dugun hezkuntzan jarri behar da arreta.

Hala, genero-kategoria botere-gailu gisa erabiltzen da, arau zisheteropatriarkalak betetzen ez dituzten eta, beraz, jaiotzean esleitu zaien generoak sortzen dituen gizarte itxaropenak betetzen ez dituzten gizabanakoak behin betiko zigortuko dira, gizarte bereizkeria eta -egoerak eginez. Beraz, hainbat sexualitate eta genero sistematikoki eta estrukturalki baztertu eta desagerrarazten dituzte. Izan ere, sexualitate horiek ez dira

funtzionalak produkzio-sisteman, ez baitituzte (nahitaez) erreprodukzio zisheterokapitalistaren logikak betetzen.

Hori horrela, hezkidetza-ikuspegiak aurretik aipatutako generoaren sozializazioak duen eraginaz kontzientzia hartzea eta begirada horretatik errealitatea ikusteko aukera ematen digu, egunerokotasunean bai norberaren eta beste pertsonen jokabide, pentsamendu eta sentimenduak ulertzeko. Alegia, edozein interakzio sozial eta produkzio mota oro ulertzeko. Produkzio mota oro esatean, esan nahi da, esate baterako, eremu desberdinetako eduki teoriko, metodologiak edo praktikokoak produzitzeari. Produkzioaren ariketa kontziente horri pedagogia feminista deritzogu, eta urrats honetan zehar hezkidetza ikuspegiak aritu bagara ere, praktika politiko gisa pedagogia feminista izendatuko dugu.

Bestalde, jaso ditugun genero-arauak, ohitura bihurtzean, eguneroko bizitzan sartzen dira, eta beraz, inkontziente bihurtzen dira. Horrek, genero-rolen eta -arauen iraunaraztea legitimatzeaz gain horien naturalizazioa dakar. Baina, generoaren sozializazioa ikasia eta eraikia den heinean, deseraiki daiteke. Horretarako, hezkidetza-ikuspegia garrantzitsua da eta presente izan behar da. Genero bakoitza nola ezaugarritzen den eta norbanakoak eguneroko praktikan ezaugarri horiek nola islatzen dituen, bai kanpo jardunean bai eta barne funtzionamenduan jabetzeko. Barne bizitzari dagokionean, generoan oinarritutako botere-harreman jokabideak deuseztatzea da hortzimuga. Baita ere, egun dauden genero-rol eta -arau dikotomiko eta zisheteropatriarkalak aldatzea da xedea. Horretarako, ikasitako eta naturalizatutako jarrerak identifikatu behar dira, gero hauek eraldatzeko, desegiteko eta beste berri batzuk eraikitzeke; harremantzeko eta finean, izateko eta funtzionatzeko modu berriez ari gara.

Genero maskulinoan hezia izatean, nola pentsatu, jokatu edota sentitu behar zaren irakasten dizute. Heziketa horrek, eragin zuzena dauka egunerokotasuneko esparru guztietan. Esaterako, bakoitzak bere buruarekin eta besteekin eraikitzen dituen harremanetan, hitzeko eta gorputzeko komunikazioan, pentsatzeko eran, espazio publikoa erabiltzeko moduan... Horietan guztietan, ezaugarri ezberdinak aurki ditzazkegu eta ezaugarri guzti horiek lotura zuzena dute maskulinitatean funtsezkoa den elementu batekin, boterearekin. Botere hori, autoritarioa da, bertikala, bortitza, lehiakorra... Gainera, botere hori, aitortua eta txalotua izaten da gure gizartean, horrek dakarren guztiarekin. Baina, argi izan behar dugu genero-roak ez direla naturalak, ez ditugu berezkoztat. Beraz, horiekin erreproduzitzen dugunaren inguruan hausnartu, zalantzan jarri eta deseraiki eta eraldatzeko ardura eta aukera dugu.

4.2.3 ZAINZA¹

Azken olatu feministak zaintzaren auzia erdigunean jarri eta hortik bizitzaren prekarietateaz eta feministazioaz hitz egiteari ekin dio; emakume trans eta bollero munduko ekonomiaren sostengu prekarizatu eta zapaldu gisa izendatzeko balio izan digu. Zaintzaren auzia jada mahaigainean dago eta gure antolakundearen sarritan eta zentzu anitzetan erabili ohi dugu terminoa. Aniztasun horrek ordea, hitzaren gaineko ulerkeria eta erabilera ezberdinak ekartzeaz gain, hitza edukiz hustutzeroaeraman ahal gaitu.

Taldeetan, zaintza hitza erabili izan da norbanakoen behar pertsonalak eta gizakien arteko tratu ona adierazteko. Zaintza deitzen diogu adeitasunari edo komunitate bat osatzen duten pertsonen artean errespetua eskatzeari. Lankideen arteko gutxieneko tratu ona, alegia. Feminismoak hori baino gehiago badela zaintza erakutsi digun arren, kapitalismoak ere kontzeptuaz jabetu nahi izan du eta, auto zaintza eta myfunlees-aren aldarria zaintzaren ikuspegi indibidualistena indartzen ahalegindu da.

Horrek gurean itzulpen bat dauka ere, batzuetan ikusi izan dugu nola zaintza pertsonalaren bandera erabili izan den hurrengoan justifikatzeko: ez bertaratzea, ez inplikatzeko, ekintza pertsonalik ez egitea... Guk argi daukagu ordea, zaintza erantzukizun eta eskubide kolektibo gisa ulertzen dugula, militantzia bizigarri eta sostengarri baterako ezinbestekoa da. Zaintza erantzukizun politiko gisa ulertzen dugu zentraltasuna izan behar du gure eguneroko zein praktika militantean. Horri aurre egiteko definizioaren beharra azpimarratzen dugu, zaintzaren ulerkeria mugatuz eta ikuspegi feministatik eraikiz. Baita orain arte zaintzaren ulerkerarako egiten genuen zaintza hirukoitzaren filosofiaren berridazketa osatua eta gaurkotua.

Lehenik eta behin, zaintza antolakundearen zer den eta nola bermatuko dugun hausnartzeari ekin genion, hainbat galdera egin genizkion gure buruari beraz.

ZAINZA ZERTARAKO?

Proiektu politikoa eta ezartzen ditugun helburuak aurrera eramateko.

ZEREN BAITAN ETA NOLA?

Antolakundearen, taldearen eta norbanakoon elkarrekintzan egiten dugu.

ZER DA?

Lana da.

Zaintza lana¹: Zaintza, lana da. Gizabanakook gure denbora eta indarrez egiten duguna, bizitza eta kasu honetan bera gure jarduna aurrera eramateko oinarrikoen egitekoak suposatzen dute. Edozein lana moduan, inplikazioa, konpromezuak eta egin beharrak dakartza, ez da sentimendu huts edo borondatez egiten dena.

Zaintza:

iz. Proiektu politikoa eta helburuak aurrera eramateko antolakundean, taldean eta norbanakoon elkarrekintzan egiten dugun **lan feminista eta transbertsala da.**


Gainera beste hainbat ezaugarri eta adibide izan dira atera zaizkigunak definizioa osagarritzen dutenak: praktika politiko eta hautu kontziente bat da; ardura eskatzen du taldea, antolakundea edo proiektua osatzen dugun norbanakoon; eta hori bermatuz gero baldintza sortzailea da (eremu eta norabide askotan).

4.3 HIRU ERPINAK: NOLA DAUDE ELKARLOTUAK, ZEIN HARREMANA DAUKATE.

Zaintza hirukoitza gure antolakundeak ardaztu duen elkarrekintzaranzko filosofia izan da. Ernaik feminismoren aldeko apustua egin zuenetik talde osasunerako, apustu politikoak egiteko eta eraldaketa prozesuen diseinuen oinarria izan dugu. Hala ere, urteak aurrera egin ahala, militantzia ereduak aldatuz joan dira, gizarte berri batera egokituz, baita zaintzaren kontzeptua beraren kontzeptualizazioa konplejizatuz eta garatuz joan da. Horregatik, ezinbestekoa dugu eraldaketa prozesu berri horren baitan, filosofia berrikusi eta aldaketa hauei egokitu.

Orain arte, dimentsio bakarreko hiruki bat irudikatu izan dugu filosofia bera azaltzeko, zeinaren baitan NI-a, GU edo taldea, eta Proiektua kokatu izan dugun. Oraingoan eta kontuan hartuta adostu dugun zaintzaren definizioa hiruki 3Dimentsionala irudikatu nahi dugu, oinarrian nia, taldea eta antolakundea kokatuz eta dimentsioa emango dion proiektua guzti horien elkargune izanik.

Hori horrela, ulertzen dugu orain arteko hiru erpinen elkarrekintza arautzeaz, eta ongizateaz bermatzeaz haratago zaintza proiektua bera aurrera eramateko erdigunea hartu beharreko auzia delako, ikusi baitugu azken olatu feministan nola bititza aurrera eramateko ezinbestekoa eta garrantzia merezi duen auzia baita.



Proiektua

Talde eta pertsona gisa lan egiten dugunean helburu batzuekin ari gara, helburu orokor batek batzen gaitu, proiektu politiko batek. Proiektua bera da batzen gaituena, antolatzen gaituena eta, horregatik, elkarrekintzaren batasun puntu bezala irudikatu nahi dugu. Horrek suposatzen du proiektua zaindu ahal izateko oinarrian kokatzen ditugun hiruen zaintza orekatua ematea ezinbestekoa dela.

Proiektua zaintzea norbanakook proiektuak barnebiltzen dituen baloreen baitan jokatzeko bizitzaren esparru guztietan esan nahi du. Proiektua zaintzea talde funtzionamendu egoki bat izatea eskatzen du. Proiektua zaintzea antolakundeak horretara bidean eztabaida espazioak ireki, erabakiak hartu, plangintza eta bestelako baliabide egokiak eskaintzea da ere. Horiek hausnarketa prozesuan zehar atera izan diren adibide batzuk baino ez dira, eta hainbat dira proiektuaren zaintzarako atera diren proposamen eta konpromezuak, aurrerago landuko ditugu.

Finean, proiektua zaintzea militantzia bizigarri eta gozagarri bat eskaintzea da, proiektuaren baitako militantzia, antolakuntza bera, helduleku, motibazio iturri eta ahaldunderako espazio izan dadin. Aurrerago militantzia bizigarriaren kontzeptuan sakontzeko ere aukera izango dugu.

Atal hau ezin dugu amaitu birgogoratu gabe batzen gaituen proiektu politikoa gure sentitu behar dugula, guk geuk osatzen dugulako proiektua, gure ekintzek, gure hausnarketek... proiektuak gu garenaz asko izango du. Gutariko bakoitzak izugarri du emateko eta proiektuak ere izugarri ematen digu guri.

Antolakundeak

Proiektua aurrera eramateko taldeak eta norbanakoak batzen gaituen antolaketa eremua da, guztion elkargunea suposatzen du eta gainontzeko erpinak bezala zaintzarako behar propioak ere baditu.

Antolakundeak proiektua aurrera eramateko hausnarketa eta eztabaida espazio nagusia dugu, Ernaik egiten dituen jarduera nagusiak aurrera eramateaz arduratzen dena, baina ez gara maila nazionaleko antolaketa markoetaz hitz egiten ari bakarri, antolakundeak, herri eta auzo bakoitzeko militante bakoitza, talde eta lantalde bakoitza, herrialdeak, ildoak... osatzen dute.

Hauetan ere arau batzuen baitan jokatzeko dagokigu eta azpimarratu nahiko genituzke honetan konfiantza, konpromezua eta elkarrizketa. Guztion ardura da elkarrizketaren bitartez antolakundearen norabidea ardaztuko dituzten erabakiak hartzea, adosten dugun horrekiko konfiantza izan eta

adostutakoarekiko konpromezu eta erantzukizuna hartzea. Erpin hau gabe proiektua bera aurrera eramateko adostasunetarako espaziorik ez litzateke egongo, koordinaziorik ere ez, eta bakarrik zailago delaren egian biziko ginateke.

Taldea

Pertsonak izaki sozialak gara, taldean bizi gara gure egunerokotasunean. Hala ere, ez digute erakutsi edota ez ditugu garatu taldean era osasuntsuan funtzionatzeko baliabide eta gaitasunak, sistemak guztiz kontrakoa bultzatzen baitu: kolektiboaren funtzionamendua eta antolakuntza aurrean indibidualismoa.

Gure kasuan, militantzia jarduna talde baten baitan antolatzen dugu eta jardun hori aurrera eramaten dugunean gure arteko harremanek, konfiantzak, elkar ezagutzak edota elkarren arteko gatazkek eragin zuzena dute. Horiei guztiei arreta jartzea ezinbestekoa izango da. Oro har, elkarren arteko harreman osasuntsuak, konfiantzak eta elkar ezagutzak taldearen funtzionamendu egokirako prebentzio gisa erabili behar ditugu.

Norbanakoa

Gure militante jarduna erabat baldintzatzen du norberak pertsona bezala sentitzen eta pentsatzen duenak, baita gure bizitzako arlo desberdinetan ditugun buruhausteez ere. Guzti horiek modu osasuntsu edota egoki batean bideratzea ezinbestekoa dugu, ongizate egoeran ondo funtzionatzen dugulako.

Pertsonak erdigunean jarriko dituen funtzionatzeko era nahi dugunez, ezinbestekoa da zaintza-praktika hau: autozaintza. Ulertuta taldearen baitan eta taldearekin egin daitekeen zaintza dela. Ez gara proiektutik aldendu behar niaren zaintzarako, proiektua bera tresna, espazio eta helduleku izan daitekeelako lehen aipatzen genuen bezala. Berriz ere, militantzia bizigarriaz ari gara.

Amaitzeko, proiektuaren baitan aipatzen bagenuen ere, merezi du aipatzea norbanakook osatzen dugula proiektua eta proiektua bera pertsona egiten gaituela eta, beraz, egiten dugun horretan sinistea eta proiektua helduleku izatea zaintzarako ezinbestekoak ditugula.

Militantzia bizigarriaren aldeko apustua, teoria praktikan funtzionatu dadin.

Hasieran aipatu bezala, triangeluaren oinarria zein dimentsioa edo bateratasuna ematen dion proiektu politikoaren zainketarako ezinbestekoa dugu militantzia bizigarria praktika militante bezala erdigunean eta eredu izatea.

Gure jarduera politikoa askatzailea da eta gure bizitza modu positiboan aldatzen, haztea eta gozatzea ahalbidetuko digu. Kontrara, militantzia ilun eta tristea guk bakarrik, banaka, egin dezakegunaren gehiegizko zentzutik etorri ohi da, eta horrek gehiegi kargatzeko ohiturara garamatza.

Militante eredu maskulinoa zurruna eta arrazionala, helburua soilik buruan, prozesua eta bere zeregin politikoaren aukera eraldatzaileaz jabetzeko aukera ematen ez duen eredu da. Horrela funtzionatzen dugunean, gainera, lan guztia amaierako emaitzaren arabera neurtzen denez, frustrazio handia sortzen duen militantzia eredu da. Akatsa da lortu ezin ditugun helburuak finkatzea eta beti plano defentsiboan borrokatzea, zerbait eraikitzen saiatu beharrean, aldaketak egin beharrean.

Militantzia bizigarria eraikitzailea da. Ezin ditugu gure helburuak jarri etengabe urruntzen zaigun etorkizun batean. Neurri batean orainaldian ere lor ditzakegun helburuak finkatu behar ditugu, ate berriak eta eszenatoki berriak irekitzeko.

Gainera, militantzia politikoak sendatzailea izan behar du. Indarra eman behar digu, ikusteko gaitasuna, gure elkartasun-zentzua areagotu behar du, eta gure interdependentziaz konturarazi. Gure mina politizatzeke gai izatea, ezagutza-iturri bihurtzea, beste pertsona batzuekin konektatzen gaituen zerbait izatea: horrek guztiak sendatzeko ahalmena du. Eraldatzailea da. Militante politikoa izateak gure bizitza eta inguruko jendearekin ditugun harremanak modu positiboan aldatu beharko lituzke. Aldea dago sufritzearen artean, ondorio mingarriak dituen zerbait egitea erabaki dugulako — errepresioari aurre egitea edo axola zaizkigun pertsonak sufritzen ikustea, adibidez —, eta autosakrifizioaren artean, gure nahiaren eta borondatearen aurka zerbait egitea baita, gure betebeharra dela uste dugulako soilik .

Horren aurrean, militantzia ereduaren atalean behin baino gehiagotan aipatutako balioen eta kolektiboaren alde jokatu behar dugu. Militantzia norbanakook osatzen badugu ere, kolektibo baten bidez proiektu bat eraikitzeke esparrua baita. Horregatik, garrantzi bereko hiru ardatzen elkar loturak osatzen du zaintza hirukoitza. Hiruen arteko orekan datza zaintza hirukoitzak. Bat kenduz gero, besteak erori egiten dira. Niaren zaintza albo batera uzteak taldearen funtzionamenduan eragin negatiboa du, eta taldea ez badago egonkor edota ez badago osasuntsu, proiektuan eragingo du. Talde osasuna zaintzen ez badugu, nekez lortuko dugu gustura lan egiteko eta anbizioz jokatzeko talde bat, proiektu bideragarri eta eraginkor bat. Ondorioz, proiektua bera eta baita nia ere kaltetuko ditugu. Aldiz, niaren edo taldearen osasunari bakarrik erreparatzen badiogu, ezingo dugu proiektuan aurrera egin.

Militantzia eredu feminista zaintza hirukoitzaren teorian berresten da. Gazte Antolakundearen praktika militanteaz harago, militantzia bizitza ulertzeko eta bizitzeko modua da eta konpromisoa gure eguneroko bizitzako esparru guztietan gogoan hartu beharko dugu. Herri eta norbanako aske izatea ukatzen digun egiturazko zapalkuntzariaurrean ekiteko, Gazte Antolakundea egiturazko balio feministak dituen tresna izan behar da, izaeran eta praktikan.

ALTA
TE
MA
RA
A

MO
MO
MA
RA
TE
BA
BO

5. ALDAKETA BATERAKO BIDEA

EGITEN

Atal honetan urratsaren prozesuaren baitan denon artean adostutako konpromezuak zerrendatu eta azalduko dira. Bertan erabaki eta hausnarketa ezberdinak mahigaineratuko dira ernaiko militante orok gure egin beharko ditugunak, eztabaida eta hausnarketa kolektiboen bidez aplikatzen joan behar garenak. Ernaiko militante orok ardura daukagu liburuxka honetan adostutako erabakien inplementazioan subjektu aktibo izateko eta planteatzen diren filosofien baitan burutzeko gure jardun politikoa eraldaketa feminista kolektibo batera bidean.

Horregatik, garrantzi berezia eman nahi diogu militante berriek zein jada sortuak eta egonkortuak dauden taldeetan hauen inguruko hausnarketak emateari eta denok hauen inplementazioa gure erronka moduan ulertzeko pausua eman dezagun, denok baikara eraldaketarako subjektu.

Beraz, orain azalduko diren erabakiak antolakundean orokortu beharreko erabakiak dira. Orain arte hiru bloke nagusiren baitan eman ditugu hausnarketak (hezkidetzak, boterea eta zaintza) eta hurrengo hauek dira eztabaida eta hausnarketa kolektibo hauen bidez hartu ditugun erabakiak:

7B-aren filosofiaren² inplementazioa: Urrats feminista honen baitan emandako hausnarketan harira bada aplikatu nahi dugun filosofia berri bat, non funtzionamendu feminista baten inguruko zertzelada batzuk azaltzen diren. Filosofia honek 7B-ak izena dauka eta hurrengo egiteko/egoteko moduak jarri nahi ditu mahaigainean funtzionamendu feminista baterako oinarri moduan:

7B-aren filosofia²: Boterearen banaketarako Joxemi Zubalabe elkarteak garatutako proposamena da.

- Borobilean: elkar ikusi, ezagutu eta aitortu dezakegulako. Ertzik ez duenez, inklusiboa eta malgua delako.
- Behetik: komunitatetik egiten dena, eguneroko hartu-emanetatik.
- Bazterretatik: sarritan ikusgarriak ez diren eremuetan arreta jarriz, aliantzan, interseksionalitatetik elkar konektatzeko nodoak bilaturik eta saretze lan etengabea.
- Bat eginda: subjektu politikoa ez delako koherentea, zapalkuntza eta eragingune anitzak jasotzen dituelako, interdependentziaren kontzeptutik abiatuta, bat eginda, baina ez nahitaez elkarri lotua.
- Berbetan: elkarrizketan, kontraesanetan eta gatazkan, hauek modu sortzailean kudeatuz. Arazoei ihes egin gabe, baina homogenizazioetatik aldentuta.
- Bidean: nolokotasunari garrantzia emanez. Proiektuak ez direlako aurre definizio itxi eta borobiletatik eraikitzen, unean uneko baldintza objektibo eta subjektiboetatik baizik
- Barrezka: militantziari alaitasun eta plazerra txertatuz, motibazioa, bestelako emozioak ukatu gabe.

5.1 ERABAKIAK

1. Ardura banaketak egiteko metodologia sortu.

Hurrengo bloke batean ardura banaketan sakonduko dugun arren, oso garrantzitsua da ulertzea militante ororen ardura dela estrategiaren garapena. Eta, beraz, militante bakoitzak duen lan eremu zehatzetik harago, Gazte Estrategiaren lan guztiak egiten ditugula gure: horiekiko jarrera aktiboa, eraikitzailea, lanerako prestutasuna, etab.

Ardura banaketa egokia egiteak talde funtzionamendua hobetzea dakar berarekin eta gainera logika batean baitan jarduten dugu normalean, horri esker garatzen dugun jarduna aberasgarriagoa izan ohi da. Hori garatu ahal izateko metodologia egokiak egitea eta hauek aplikatzea ezinbestekoa izango da.

2. Dinamizazio politikotarako pedagogia feministaren oinarrien lanketa.

Pedagogia feministak egiteko, egoteko eta eraldatzeko moduen inguruko

ikuspegi berri bat jarri du mahigainean eta guk zentzu horretatik jorratu nahi dugu gure dinamizazio politikoa. Espazio seguruak sortu behar ditugu elkarekintzan eta lankidetzan oinarritutako elkarrizketa eta ikaskuntza aktiboan aurrera urratsak emateko asmotan. Horrek, gure egiteko moduetan errebisio bat egitea eskatuko du eta hauek ikuspegi feminista batetik aztertu ondoren martxan jartzen hastea da asmoa.

3. Jarrera erasokorrak mozteko baliabideen erabilera sustatu.

Horretarako urrats feministaren prozesuaren baitan lehen mailako erasoak identifikatzeko gida bat sortu zen. Erasoa zapalkuntza sistema oso baten adierazpide gisa ulertuta, balio politiko kolektiboen isla ere badira. Horregatik, kolektiboa inplikatu, interpelatu eta ardura hartzea ezinbestekoa da.

EMANEREN URRATS FEMINISTA

IBILERAN EMAN DAITZEEEN ERASOAK

- Indiferentzia.
- Mespretxu, nazka keinuak.
- Hitzak kentzea.
- Azalpenak berrematea.
- Proposamen, ideia, iritzi feministak errikulizatzea.
- Proposamen, ideia, iritzi batzuei beste batzuei baino balio gehiago ematea.

ERASO ERAGIN BADUT

- Ardura hartu.
- Kontziente izan.
- Onartu.
- Hausnartu.
- Komunikatu/esplizitatu.

ERASO IKUSTEN BADUT

- Ez izan konplize, ez geratu isilik.
- Komunikatu.
- Ardura hartu.

ERASO JASATEN BADUT

- Identifikatu.
- Mahaigaineratu.
- Aliantza feministak eraiki.
- Interpelatu.

PROZEDURAZ HAUSNARTU

- Zer/Noiz/Nola/Nori/Norekin komunikatuko dut?



HAR Lehen mailako erasoak identifikatzeko gida

DEZAGUN

ARDURA ✨

OINARRITZKO FILOSOFIA

1. Erasok zapalkuntza sistema oso baten adierazpide gisa ulertuta, balio politiko kolektiboen isla ere badira. Horregatik kolektiboa inplikatu, interpelatu eta ardura hartzea ezinbestekoa da.
2. Prozedura bakoitzaren exaugarritzea ongi dago (noiz, nola, nori komunikatu edo lantzen dugun adibidez).
3. Momentuan sentitzen ditugun emozio eta sentimenduak (amorua, tristura, helpe...) zilegiak dira.

KONTUAN HARTZEKOAK

1. Adina.
2. Ibilbide militantea.
3. Taldeko rola.
4. Taldearen harreman dinamika.
5. Erasoa jasan/eragin dutenen harreman dinamika.

4. Urratseko hausnarketekin jarraitu, urratsa bera neurria da.

Gure antolakundea eta gure espazioak emakume, trans eta bollerontzat ez dira erosoak, baina ez dugu urrats feminista hau horretarako soilik egiten. Gure helburua EH feminista eraikitzea da, gazte estrategia feminismitik zeharkatua egon behar da eta estrategia independentista feminista izan behar da. Beraz, urrats hau ez da liburuxka honekin amaitzen. Liburu honek inflexio puntu bat suposatzen du, baina urrats feministaren baitan hartutako erabakiak eta irekitako eztabaidak ematen jarraitu behar dugu, antolakundea eta antolakundeko militanteok egunero eraldatzen.

5. Errebisio feministarako hezkidetzaren metodologia:

Metodologia berriak behar ditugu gure jarduna ahalik eta onena izateko eta guzti horren baitan errebisio feministak egin ahal izateko. Badakigu amesten dugun antolaketa eta funtzionamendu feministaren baitan egiten diren lanketa guztiak feministak izan beharko liratekela une oro, baina prozesu horren baitan pausu garrantzitsua da berme batzuk edukitzea eta errebisio feminista egin ahal izateko metodologiak eskura edukitzea.

6. Komunikazioa hobetu:

Komunikazio egoki bat edukitzea garrantzitsua da funtzionamendu hobe bat edukitzeko, iritzi eta hausnarketa ezberdinak elkar banatzeko espazioak sortzeko eta denok taldearekiko konfiantza eduki dezagun.

7. Deseraikuntza prozesu derrigorrezkoak:

Prozesuarekin argi geratu da eraldaketa bat burutu nahi badugu deseraikuntza prozesuak ematea eta gure burua zein gure egiteko moduak zalantzan jartzea garrantzitsua izango dela une oro. Hau amaitzen ez den prozesu bat da eta logika horren baitan jarraikorki deseraikuntza prozesuak martxan jartzea garrantzitsua izango da.

8. Beto feminista eguneratzea:

Ernaiko III. Kongresuaren baitan beto feministaren elementua jarri zen mahigainean eta urratsaren bidez horren inguruko hausnarketan eta teorizazioan sakontzeko hautuan berretsi gara, eta hori izango da erronka. Gaur gaurkoz hau da beto feministaren inguruan antolakundean daukagun norabidea:

Antolakundearen jardunean etengabeko begirada feminista izateko apustua dugu eta eremu horretan sakontzeko neurriak garatzen gabilta. Hori bermatzen

ez den kasuetan, ordea, beto feministaren tresna dugu eskuragarri: eztabaida edo erabaki baten gainean neska, trans eta bollerak militantek, ikuspegi feminista arrazoitua oinarri, erabaki bat eteteko eskubidea dugu. Beti ere, helburua guztiok ikuspegi feminista hori garatzea eta etengabean presente izatea izango da.

9. Lidergotza feministak bultzatzen jarraitu eta horren gainean teorizatu:

Urrats feministaren baitan lidergotza feministaren baitako hausnarketa ezberdinak eman ditugu eta horrekin batera horien inplementazioari ere garrantzia eman nahi diogu. Martxan jarri ahal izateko ereduak sortzea garrantzitsua izango da, egiteko modu berriekin batera. Horrek gure antolakundeko espazio eta ertz ezberdinak ikutuko ditu, eraldaketa feministaren oinarrian ere kokatuz.

10. Neska, trans eta bollerak boteregunean jarri:

Eragite feminista bat eman ahal izateko neska, trans eta bollerak botere espazioetan eta erdigunean kokatu behar gara, eta horiek egikaritu ahal izateko mekanismoak martxan jarri behar dira.

11. Osasun ekonomikoa eta baliabideak zaindu:

Antolakundea zaindua egon dadin antolakundearen zein antolakundeko kideok jardun politiko egoki bat garatu ahal izateko osasun ekonomikoa eta beharrezkoak diren baliabideak zaintzea garrantzitsua izango da. Hori ariketa eta ardura kolektibo batzuen baitan ematea ere garrantzitsua izango da.

12. Biltzeko espazioen irisgarritasuna eta txukuntasuna:

Jardun politikoa aurrera eraman ahal izateko garrantzitsua da espazio fisikoa ere zaintzea eta horrek bere horretan irisgarritasuna, espazioaren txukuntasuna... dakartza berearekin.

13. Datak garaiz jarri eta gorde:

Bi elementuk zeharkatzen dute erabaki hau. Batetik, herri honetan agenda politiko potentea dagoela dakigun arren, antolakundearen ere lehentasunak markatu behar dira batzuetan eta hori egoki egin ahal izateko eta parte hartze aktiboak eduki ahal izateko garrantzitsua izango da datak garaiz jarri eta parte hartzaileek data hori jada gordetzea. Bestetik, geroz eta gizarte indibidualistago batean bizi garen honetan, lehentasun ikuspegi indibidualista batetik zerrendatu ohi ditugu eta hori ariketa kolektibo bat izan behar da eta gure lehentasunak nondik, nola eta zergatik aukeratzen ditugun pentsatzen hasi beharko ginake.

14. Banatzen diren ardurak bete:

Ardura banaketa egokia egitearen inguruko zertzelada batzuk lantzen joan gara azken aldian eta ardura banaketa ekitatibo bat egitearen garrantzia azpimarratu dugu. Baina ardura banaketa egokia egitetik at banatzen diren ardurak betetzea ere garrantzitsua izango da antolakundea, proiektua eta taldea zaindu ahal izateko. Ardura banaketa logika baten pean egin ohi da; mugarri bat ondo ateratzeko, prozesu egoki bat diseinatzeko... finean proiektu politikoa kolektiboki aurrera eramateko. Horregatik, denok gure ardura daukagu hau burutu dadin eta denon ardura da ardura banaketa egoki bat egin eta hau betetzen dela ziurtatzea eta hori egikaritu ahal izateko beharrezkoak diren bermeak mahi gainean jartzea.

15. Militantzia ereduaren araberako proposamen organizatibo eguneratzeko hausnarketa abiarazi:

Gaur egungo Ernai belaunaldi ezberdinek osatzen dute eta horren baitan kulturalki ematen ari diren aldaketek ere eragin bat ekarri dute gure antolakundean eta kultura militantean. Horren inguruko hausnarketa politiko egoki bat egin beharko genuke baina honekin batera proposamen organizatiboa berritzeko erronka mahigainean jarri behar dugu, ziklo politiko honek eskatzen dizkigun erronkei aurre egin zein militantzia ereduaren eman diren eta ematen ari diren aldaketak kontuan hartzeko.

16. Hausnarketak, proposamenak, erabakiak, iritziak eta batez ere iritzi gutxituak kontuan hartzeko espazio gehiago ireki:

Antolakundearen jardun edo erabakien gaineko kexa, desadostasun edota ekarpenak proposatu eta erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea, eta hori berau bideragarri izateko prozedura bat egotea. Prozedura zehatza izango du eskubide bakoitzaren gauzapenerako prozesuak. Ernairen Hirugarren kongresuan horrela zehazten da:

"Militante orok du eskubidea kexa, desadostasun edo ekarpen bat egiteko eta erantzun bat jasotzeko; norbanako gisa, kolektiboan edo herriko/auzoko talde bezala. Gaur egun egiten den moduan, kexa, proposamen edo desadostasunen aurrean, unean bertan erantzun arrazoitua ematen saiatuko da.

Pisuzko gaietan ordea, kexa, desadostasuna edo ekarpena egiteko bitarteko bat sortuko da eta erantzun arrazoitua jasoko du proposamenak."

17. Antolakundean harturiko erabakiak errespetatu:

Antolakundeko espazio ezberdinetan erabakiak hartzen dira eta horiek militante orok errespetatzea garrantzitsua izango da. Gerora, aurreko zatian aipatu dugun modura, horien zergatia/hausnarketak/eztabaidak emateko espazioak irekiko dira, baina garrantzitsua izango da erabakiak errespetatzea eta konfiantza politikoaz jardutea erabaki hori hartu duen espazioarekiko.

18. Formakuntzarakoa aukera ezberdin (eraginkor eta egokituak) eskaini, baita hauek probestu (jakinmina izan):

Ernaik formakuntzaren alorrean proposamen ezberdinak mahigaineratu ditu azken aldiak eta sakontzen jarraitzea dagokigu. Ernaiko militante oro etengabeko formakuntza batean murgilduta egon behar da, baina hori burutu ahal izateko formakuntza modelo ezberdinak mahigainean jartzen jarraitu behar dugu, ahalik eta aktibo eta emankorra izan dadin.

19. Antolakundeak dituen baliabide/euskarri teorikoak eskuragarri jarri:

Garrantzitsua da antolakundeko kide guztiok eskuragarri edukitzea antolakundeko baliabide eta euskarri ezberdinak eta horretarako ernaiko barne tresna (saretzen) tresna baliagarria da. Baina baliabide hori ere ondo aktualizatua eta ordenatua izatea garrantzitsua izango da informazioa era egokian aurkitu ahal izateko.

20. Informazio transmisio egokiak bermatu, harago joanda zergatien kontzientzia garatzeko baliabideak eta informazioa eskaini:

Informazio transmisio egokia egitea garrantzitsua da hartzen diren erabakien nolakotasuna, hausnarketak... ulertu ahal izateko eta iritzia sortu ahal izateko. Horretarako baliabide eta tresna ezberdinak jarri daitezke martxan; izan informazioa transmititzeari eskaintzen diogun denbora kalitatezkoa izan dadin eta hausnarketak plazaratzeko espazioak sortu daitezten.

21. Sarrera eta irteera prozesuak zaindu:

Hori bermatu ahal izateko prozesu kolektiboak martxan jarri behar ditugu eta horretarako antolakundetik jada sortuak dauden baliabide ezberdinak martxan jartzea garrantzitsua izango da.

Sarrera:

- Ernaiko taldean militatzen hastea prozesu bat bezala ulertu behar dugu. Ez da egun batetik bestera egiten den zerbait, gaur militatzen hasi nahi dut eta bihar bertan taldeko kidea naiz.

- Prozesuak diren heinean, planifikazioa eskatzen dute. Ahalik eta modu txukun eta ordenatuenena egin eta kide berriak modu egokienean egokitzeko, aurrez pentsatu behar dugu herriko taldean.
- Behar den denbora hartuko dugu, bai taldean sartzeko eta baita behin taldean sartuta bertara egokitzeko.
- Prozesua diseinatu eta urratsak ematearekin batera beharrezkoa da jarraipena eta errebisioa egitea.
- Kide berri guztientzako osatuko dugun prozesua ezin du denentzat berdina izan, kokapen maila ezberdinak eta eritmo ezberdinak ditugun neurri berean, prozesua ere pertsonetara egokitzen jakin beharko dugu.

Irteera

- Erreleboak eta ardura-uzteak/hartzeak prozesu gisa ulertzearen garrantzia: eman beharreko errelebo eta transmisioak modu egokian egin daitezten, ingurua aldaketetara ahalik eta modu egokienean egokitzeko, gainontzeko kideen ahalduntzean urratsak eman ditzagun... prozesu moduan garatu beharko ditugu urrats horiek.
- Prozesuak diseinatzea ezinbestekoa izango da.
- Ariketa horrek militantziako ohiko lanek ez bezala lan eta hausnarketa pertsonala eskatzen du bereziki. Ariketa horretan arreta jarritz gero, norberarentzat ekarpen pertsonal handirik suposatuz ez balezake ere, kontziente izan behar gara ekarpen handia egin diezaiekegula taldeko kide gazteenei.

22. Jarrera proaktiboa eta motibazioa sustatzeko ariketak espazio ezberdinetan

Lanaren aitortza egiteaz, militantziaz gozatzeaz eta garaipenak ospatzeaz ari gara erabaki honekin. Militantzia bizigarri bat eskuratu ahal izateko jarrera proaktiboa eta motibagarria izatea garrantzitsua da. Argi dago beti ez dela erraza izaten une oro tentsioa/ilusioa mantentzea, baina ariketa ezberdinak inplementatzen joan behar gara eta oriek behar dituzten espazioak eskaintzeko hautua egin behar dugu.

23. Aliantza transfeministak

Aliantza feministen atalari espazio berezi bat eskaintzeko beharra argi geratu da prozesu guztian zehar atera diren ondorioak irakurriz. Batetik, aliantza

feministen inguruko gogoeta ezberdinak eman dira urratsaren baitan eta horien estrategikotasuna mahigaineratu da behin baino gehiagotan, eta bestetik aliantza feministen ikuspegitik hartu beharreko konpromezuei espazio egokia eskaini nahi genien.

Hausnarketaren baitan ere urrats feministan harturiko beste erabaki bat ere kokatu nahi da. Orain arte, Ernaien espazio ez mistoen inguruan ibili gara hizketan eta horien estrategikotasuna aitortuz aldaketa bat emateko urratsa mahigaineratu nahi dugu (izendapenari dagokionean). Espazio ez mistoak deitzetik aliantza feministak sortzeko espazio transfeministak deitzeko hautua hartu dugu. Aldaketarekin batetik aliantza feministei duten estrategikotasuna eman nahi diegu eta antolakunde barruan ere horiek sortzeko beharra mahaigaineratu nahi izan dugu. Bestetik, elkargune transfeministak erdigunera ekarri nahi ditugu, ulertuta oinarri garrantzitsua direla eraldaketa feminista baterako.

Erabakiak:

- Aliantza feministen inguruko eztabaida kolektiboa ematea. Nola ulertzen ditugun eta Nola baliatu nahi ditugunaren inguruko ulerkera amankomun bat eraikitzeko.
- Erresistentziaz eragite politikora pasa eta antolakunde osoan zehar igaro.
- Jada sortuak dauden espazioetan aliantza feministak esplotatzearen eta mahigainera ekartzearen urgentzia (horren barruan espazio ez mistoak, baina hortik haratago).
- Neska, trans eta bollerok botereguneak hartzeko unea da. Horrek aldaketa bat suposatu behar du antolakundeko espazio ezberdinetan: erreleboak nondik eta nola pentsatzen ditugun, ernaik zer proiektatzen duen, egiteko moduak....
- Emakume, trans eta bolleraren arteko aliantzei duten balio politikoa eman eta hauek sortzeko espazioak eskaini.

5.2 MEKANISMOAK

Militantzia eredu feministaren gaineko eduki teorikoa lantzearekin batera, gure militantzia feministagoa bihurtzeko urrats praktikoak irudikatzen hasi ginen mekanismoen bitartez. Mekanismo hauek taldeetan bizi diren egoera eta errealitate ezberdinen gainean sortu diren arren, egoeren atzean sistema osoa dago eta estrukturalak direla ezin dugu ukatu.

Horretaz jakitun izanik, taldeetan irudikatutako mekanismoen sailkapena jasotzen da atal honetan, eskuragarri izan ditzagun gure jardunean aldaketak ematen jarraitzeko. Sailkapena hurrengoa da:

- Ardura banaketa orekatua egitea
- Talde funtzionamendua hobetzea
- Emozioen adierazpenerako tartea egotea
- Feminismoa balorean jartzeko

Bilduma honetan, egoera posibleak, mekanismoaren izena, bere izaera eta bere inplementazioaren ondoren sustatu nahiko lituzkeen ondorioak jasotzen da. Hots, aplikagarritasuna eta errebisioa ez dira jasoko, talde bakoitzak hobekien dagokion moduan moldatuko baitu mekanismoa.

Beraz, atal honek mekanismoen bilduma eskuragarri izateko asmoa du. Hartu anbizioz eta irakurri, martxan jarri, erabili, baloratu, gozatu, errebisatu...

EGOERA 1 : ARDURA BANAKETA DESOREKATUA

Mekanismoak	Izaera	Ondorioak
· Kronograma: Taldekide bakoitzak ikasturtearen tarte ezberdinetan dituen ardurak marraztea, baita ardura nominalak ere.	· Kontzientziatzailea · Prebentiboa eta zuzentzailea	· Talde osoarena lan banaketa arduratsu eta orekatua izatea · Lan karga ekitatiboa lortzea · Ardurak bermatzen direla ziurtatzea.
· Ardura errotatiboak.	· Boterearen banaketa	· Balioanitzeko perfilen ahduntzea.
· Aktaren amaieran taula.		· Lankarga ahalik eta hobekien banatzea.

EGOERA 2: FUNTZIONAMENDU DESEGOKIA TALDE BIZITZAN

Mekanismoak	Izaera	Ondorioak
<ul style="list-style-type: none"> · Bileren sistematizazioa 	<ul style="list-style-type: none"> · Formalitatea 	<ul style="list-style-type: none"> · Taldekideen asistentziak ziurtatzea, data aldez aurretik gordeta izatea. · Bilerei duten aitortza egitea.
<ul style="list-style-type: none"> · Taldetxotan edo bikoteka lan egitea 	<ul style="list-style-type: none"> · Pedagogikoa 	<ul style="list-style-type: none"> · Ezagutzaren kolektibizazioa. · Ardurak betetzen direla bermatzea.
<ul style="list-style-type: none"> · Iritzien erronda anonimoak: Gai baten inguruan eztabaida-hausnarketa abiatzeko momentuan, norbanako bakoitzak bere iritzia idatzi-anonimoki eta ostean denak batera irakurtzea. 	<ul style="list-style-type: none"> · Parte hartzailetasuna 	<ul style="list-style-type: none"> · Iritzi guztiak balioan jartzea, eta ahots guztiak entzuteko unea bermatzea.
<ul style="list-style-type: none"> · Hartu-emana: Kritika eta autokritikak botatzeko unea irekitzea bilera amaieran. Gai-orden guztietan sartuta egon behar da eta ez dago erantzuteko aukerarik. 	<ul style="list-style-type: none"> · Pedagogikoa 	<ul style="list-style-type: none"> · Kritikak eta autokritikak egiteko gaitasuna irabaztea.
<ul style="list-style-type: none"> · Dinamizazio eta aktalari errotatiboa. 	<ul style="list-style-type: none"> · Pedagogikoa 	<ul style="list-style-type: none"> · Taldekide orok dinamizaziorako eta akta jasotzeko gaitasunak irabaztea.

<ul style="list-style-type: none"> · Kedada gehiago jartzea astean. 		<ul style="list-style-type: none"> · Kontaktu gehiago astean zehar taldekideekin talde izaera sustatuz. · Ardurei dagozkien kezka konpartitzeko tarte gehiago. · Kontu praktikoagoak egiteko kedadak izatea (agipropa...) · . . .
<ul style="list-style-type: none"> · Inpuntualitatea: Berandu datorrenak ondorio bat izango du (merienda denentzat ekartzea, isuna...) 	<ul style="list-style-type: none"> · Formalitatea 	<ul style="list-style-type: none"> · Diziplina gehiago izatea eta taldearekiko errespetua izatea.
<ul style="list-style-type: none"> · 5-10 minutu hartzea norberak pentsatzeko eztabaida, hausnarketa eta balorazioak egin aurretik. 	<ul style="list-style-type: none"> · Parte hartzailetasuna · Prebentiboa 	<ul style="list-style-type: none"> · Ideiak ordenatuta botatzeko gaitasuna garatzea. · Hitzartze gutxiago egitea. · Emakume trans eta bolleren ahalduntzea. · Gizonak isilik geratzeko gaitasuna garatzea.
<ul style="list-style-type: none"> · Gai-ordena alde aurretik bidaltzea eta taldekideek puntuak gehitzeko aukera izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> · Formalitatea 	<ul style="list-style-type: none"> · Taldekide oro jakitun izatea bileran hitz egingo denaz. · Taldekide orok aukera izatea gai-ordenean puntuak gehitzeko.
<ul style="list-style-type: none"> · Autokonfiantza garatzeko aukerak irekitzea. · Tailerrak egitea konfiantzan. 	<ul style="list-style-type: none"> · Ekimentza · Pedagogikoa 	<ul style="list-style-type: none"> · Taldeko emakume trans eta bolleren ahalduntzea.
<ul style="list-style-type: none"> · Eduki ardura/rola zehaztea. · Eztabaida, hausnarketa, balorazioa egiteko tarte gordetzea bileretan. Gai ordenetan zehaztuta. 	<ul style="list-style-type: none"> · Pedagogikoa. 	<ul style="list-style-type: none"> · Aktualitateko gaien jakintza garatzea. · Eztabaidarako, hausnarketarako eta baloraziorako gaitasunak garatzea.

EGOERA 3: EMOZIOEN ADIERAZPENERAKO TARTE EZA

Mekanismoak	Izaera	Ondorioak
<ul style="list-style-type: none"> · Bileren hasieran tartea irekitzea. · Gai-ordenetan sistematizatzea bilera hasieran norbere kezka azalertzeko tartea irekitzea. 	<ul style="list-style-type: none"> · Talde izaera 	<ul style="list-style-type: none"> · Talde pertenezia sustatzea · Taldekideen arteko komunikazioa eta konfiantza hobetzea.
<ul style="list-style-type: none"> · Saio espezifikoak urtean zehar. · Beharren arabera saioen diseinua egingo litzateke, urtean zehar 2 edo 3 saio egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> · Talde izaera · Formalitatea · Egokitzapena 	<ul style="list-style-type: none"> · Beharren arabera aldaketa egiteko eta egokitzeko gaitasuna garatzea.

EGOERA 4: FEMINISMOARI BALIOA EMATEKO

Mekanismoak	Izaera	Ondorioak
<ul style="list-style-type: none"> · Gai-orden guztietan lantzea. 	<ul style="list-style-type: none"> · Sustatzailea 	<ul style="list-style-type: none"> · Feminismoak presentzia gehiago izatea.
<ul style="list-style-type: none"> · Herriko/auzoko agenda eta kronograma feminista aurrean izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> · Sustatzailea 	<ul style="list-style-type: none"> · Taldekide oro jakinaren gainean egotea eta denak feminismoz bustitzea.

**BA
BA
BA
BA
BA**

**BA
BA
BA
BA
BA**

6. AMAIERAKO HITZA

Militantzia feministarako proposamen bat. Proposamen anbiziotsu bat. Antolakundea eraldatzen ari gara, Ernaitik hasita Euskal Herriko egitura guztien despatriarkalizazioa sustatzeraino. Badugu Ernairen estrategia feministaren oinarriak jarriko dituen militantzia proposamena, baita aurrera eramateko konpromiso, erabaki eta tresnen multzoa ere.

Ernai eraldaketarako eskola den heinean, militanteok eraldaketarako subjektu gara, eta argi dugu ez dugula eraldaketa etxe barrura mugatuko, argi dugun moduan ez garela isolaturik bizi eta jendarte zisheteropatriarkal kapitalista batean hazi eta hezi garela.

Eraldaketari mugak ez jartzeak sekulako konpromiso militantea eskatzen du, bizitzako eremu ezberdinetan kontzientzia garatu eta sistemak bideratu nahi gaituen bizi estilo hegemonikoari uko egitea eskatzen baitu. Indibidualismoa gailentzen den garaiotan, lan gogorra da bizi estilo horri ezetz esatea: ikasketak garatzea, enplegu duina izatea, moda jarraitzea, etxebizitza eskuratzea, bikotea izatea, familia nuklearra eraikitzea, gorputz normatiboa izatea, norbanakoaren auto-zaintza, aisialdi eredu jakina...

Baina Ernaiko militanteok badakigu norabide hau jarraitzeko nahiak zer suposatzen duen gazteontzat: ezegonkortasuna, prekarietatea, buruhausteak, osasun mental kaltetua izatea, harremanen likidotasuna, bakardatea, konpromezu eza... Bizi estilo hegemonikoari uko egitea, beraz, eraldaketarako subjektu garenon ekintza iraultzaile goren da.

Ekintza hori militantzia feministaren oinarritzko ezaugarria da. Definizioari jarraiki, militanteok bizitzako esparru guztietan gara militanteeta, beraz, bizitzako gainontzeko eremuetan ere kritikoa izan eta eraldaketarako grina garatu beharko genuke.

Ezin aipatu gabe utzi, bizi estilo hori garatzearen atzean erabaki indibidualistak daudela bereziki. Erreparatu beharko genioke erabaki indibidualista horien atzean zein nahi eta desira hegemoniko dauden eta zein eragin eta ondorio duten gure militantzian. Militantzia norbanakook osatzen badugu ere, kolektibo baten bidez proiektu bat eraikitzeko esparrua baita. Zaintza hirukoitzaren teoriak egoki adierazten duen moduan.

Eraldaketaren bidea, beraz, ez da erraza izango: kontzientzia garatu, kontraesanak izan, kulpa sentitu, kontraesanak garaitu, talkak eman, eraldaketa gauzatu, aliantzak (des)eraiki...

Gazte Antolakundearen praktika militanteaz harago militantzia bizitza ulertzeko eta bizitzeko modua da eta konpromisoa gure eguneroko bizitzako esparru guztietan gogoan hartu beharko dugu. Herri eta norbanako aske izatea ukatzen digun egiturazko zapalkuntza honen aurrean ekiteko, Gazte Antolakundea egiturazko balio feministak dituen tresna izan behar da izaeran eta praktikan.

M I L I T A N T Z I A
F E M I N I S T A R A K O
P R O P O S M E N A

